

Hiri Antolamendurako Plan Orokorrerako (H.A.P.O.) parte-hartze prozesua abian jartzeko mozioa.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra gaur egun indarrean dauden Arau Subsidiarioak ordezkatu dituen hirigintza plan bat da eta Lasarte-Oriako garapena diseinatzeko helburua izango du.

Udalerriko lurzorua erabilera; haren balizko eraldaketa eta eraikuntza; nahiz eraikin eta instalazioen erabilera, kontserbazioa eta birgaitzea; hala nola generoa, hizkuntza eta ingurumen-bilakaera arautzeko eta bide-orria markatzeko izango da.

Herritarren iritzia berebiziko garrantzia du. Inork ez luke kanpoan geratu behar Plan Orokorraren egikaritze prozesuan, eta ongi etorriak izango dira edonolako ideia eta ekarpenak. Herritarren ekarriak eta iritzia jaso eta kontuan hartzeko ezinbestekoa izango da parte-hartze prozesu eraginkor bat burutzea hasiera-hasieratik, herritar ororen parte-hartzea sustatu eta herritarren ahalduntzea helburu izango duena. Izan ere, parte-hartze prozesu orok komunitatea indartu, erabakiak legitimatu eta herritarrak ahalduntzen ditu.

Horregatik guztiagatik, Lasarte-oriako EH Bilduk honako eskaera egiten dio Udal Batzari:

1. Lasarte-Oriako Udalak Hiri Antolamenduraren Plan Orokorra burutzeko, **hasiera-hasieratik, parte-hartze prozesua egikaritzeko konpromisoa** hartzen du, eta horretarako **beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta teknikoak ezarriko** ditu.
2. Lasarte-Oriako Udalak diagnostiko objektiboa jaso duen bezala, **parte-hartze prozesu baten bidez**, herritarren iritzia eta ekarpenak bildu eta **diagnostiko subjektiboa jasoko** du.